

bait autoreren gogoan dagoena: Euskal Herriaren berreraikuntza nazionalaren funtsezko dimentsioa da Euskal Kulturaren berbizkundera. Horrek, berriz, kultur proiektu berri, zabala eta irekia eskatzen du.

***Euskadi Kulturala* eta «información cultural»**

BAT aldizkariaren bigarren zenbaki hau kaleratu orduko, *Euskadi Kulturala* hilabetekariak bere seigarren zenbakia argitaratua izango du. Jendetasunak eskatu ohi du, aldizkariak zorion eta urte askotarako! esanez agurtzea besteren baten jaiotza. BATEk ez du jendetasunean huts egin nahi. Beraz, ongi etorri!

Revista de información cultural du azpitolulutzat aldizkariak. Eta «4.000 bat kultur gizoni eginiko itaunketak» adierazi dien interesak bultzatu omen ditu honelako aldizkaria kaleratzera. Aldez aurretiko interes horretaz gain, Jaurilaritzako Kultura eta Turismo Sailaren erabateko babesaren izan dutela aitortzen du aurkezpenean.

«Euskadiko Kulturaren nondik norakoen berri, zehatz-mehatz ematea» du helburu hilabatekari berriak. Helburua txalogarria benetan, gure egunkarietako orririk gehien-gehienak politikak eta kirolak jaten bait dituzte, eta kulturarako orrialde triste batzuk besterik ez zaizkie geratzen.

Euskarazko titulua eta erdarazko azpitolulua gora behera, bi hizkuntzak nahasian darabiltza aldizkariak; baina erdara da guztiz nagusi.

Jakin dugunez, Jaurilaritzaren erabateko babes hori erabateko subentzioa eta gastu-estaltzea da. Aldizkaria dotorea da paperez, kolorez, irudiz eta moldez. Dohan banatzen dute: dohan eta nonbait oso esku zabalez, etxe eta kultur zentru bat baino gehiagotan hainbat ale ikusi bait ditugu, postako sorta berebean etorriak.

Zoritxarrez, horrela banatzen diren orri eta aldizkarien helmuga badakigu zein izaten den sarritan: paperontzia edo zakarrontzia. Hala ere, beste zenbait 'kultur gizon' eta 'kultur emakume' ezagunen aldetik kekurik entzun izan dugu, beraiei ez zaiela iristen eta. E.H.U.ko irakasleak kulturginginak izanik lanbidez, horien helbideak eskuratzea ez dirudi, ordea, ez nekeza eta ez azkena izan beharko lukeenik era horretan horrelako aldizkaria banatzekoan. Atrebentzia ez bada, edozein kulturazalek eska diezaiokeela esango nuke *Aska* argitaratzaileari, eta bidaliko diotela uste dut.

Batek baino gehiagok kritikatu du, ez samin eta garrastasunik gabe, eta seguruenik ez arrazoirik gabe, horrelako ekintza kulturazkoaren azpian nabari den kultur politikaren okerra, batez ere euskal kulturgintzako hainbat elkarte eta erakunde herritarren oso baliozko ekimen aipagarri eta aupaga-

rriei erakunde publikoen aldetik eman ohi zaien laguntza xuhurra edo uko laburra gozoan izanik.

Esandakoak esan, guri beste kezka bat ere badatorkigu burura: *Euskadi Kulturala* bere 6. zenbakira iritsi baino lehen, *Información Cultural*, Espainiako Kulturako Ministraritzak ateratzen zuen hilebetekaria, bere 81. zenbakira orduko hil egin dela -hil egin dutela, esan behar, Ministraritzak ez bait zedukan hiltzen utzi beharrik-. Bat baino gehiago konturatuta zegoen, ordea, Euskal Herrikoa ez zela Espainiakoaren kopia besterik. Zenbatgarraren zenbakiraino iraungo du, edo irauun eraziko diote *Euskadi Kulturala*-ri? Horra adierazi kezka.

Euskalduntze-alfabetatzea: Lehen Ihardunaldiak

Joan zen maiatzaren 19 eta 20an, EKBk eraginda eta beraren babesean, burutu zituzten *Euskalduntze-Alfabetatzearen 1. Ihardunaldiak* Heldeei euskara irakasten diharduten erakunde ezberdinetako irakasleek. Erakunde guzti edo ia guztietako lagunek hartu zuten parte horietan: AEK (Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundea), Udal Euskaltegiak, Euskaltegi homologatuak, Euskaltegi libreak, HABE, Nafar Gobernuako HEI. Ikastari, 100 lagun denetara.

25 urte izanik Helduen euskalduntze eta alfabetatzearen mugimendua abiatu zela, benetan historikotzat jo daitezke 1. Ihardunaldiok, hogeitabost urte horietako esperientziaren azterketa egiteko eta aurrera begira urrats bateratu eta sendoak markatzeko asmotan. Ez da erraza eta ez laua izan herritarren ahalegin beroak eta erabakiorrak abiatu zuen ekinaldi galant hori, ikastolek haur eta gaztetxoentzako abiatu eta gorpoztu zutenaren antzekoa. Gorabehera, tirabira eta haustura franko ere izan ditu, eta ez txikienak azken urteotan; sarritan latzak eta mingarriak; etsitzekoak ere bai inoiz. Baina gehienek ez dute etsi!

Aurrera begira dagoen lana ikaragarria da, izan ere. Bai organizazioaren eta koordinazioaren, bai irakaslegoaren prestakuntzaren eta didaktikaren aldetik, sailaren eta mugimenduaren heldutasunerako urratsa egiteko garaia iritsia dela jabeturik, denen artean eman nahi izan dute urrats hori, denen artean sailaren egoera soziala, juridikoa etab. aztertuz eta esperientzia didaktiko ezberdinak trukatzuz; horrela indarren sakabantze-dinamika gaintzeko, saila eta mugimendua gizartean eta erakunde publikoen aurrean indartzeko, eta aurrerantzeko elkarlana bultzatu eta ahal den neurrian eratzeko. Denen helburua berbera bait da: Euskal Herria euskalduntzea, euskal herritar guztiak "euskaldun oso" bihurtzea.

Uste izatekoa da, beraz, ez direla azkenak izango horrelako Ihardunaldiak.